



2012KO URRIAREN 4KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko urriaren lauan, iluntzeko zazpi eta erdi-etan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Andoitz Garmendia Zubeldia, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, eguneko gai zerrendan sartutako gaiak aztertzeari ekiten zaio.

I.- 2011KO KONTU OROKORRA.-

2011 ekitaldiko Kontu Orokorra, Kontuetarako Batzorde Bereziak 2012ko ekainaren 11n egindako bilkuran aztertu eta informatua izan zen.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2012ko uztailaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2011 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

Kontu Orokor honek udalaren 2011ko Kontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarte anonimoaren 2011ko urteko kontuak hartzen ditu barne.

II.- LAZKAO LANTZEN, S.A.RI ABALA EMATEA.-

Entitate honi eskatu zaio Lazkao Lantzen, S.A. udal elkarteak kontratatuko duen kreditu eragiketa bat abalatzeko.

Horretarako, kontuhartzailearen txosten ekonomiko-finantzarioa aztertu ondoren, Udal- batzarrak erabateko gehiengoz erabaki du:

- 1.- LAZKAO LANTZEN, S.A. udal elkarteak hitzartuko duen kreditu eragiketa hau abalatea.

- Helburua: Abalatzea
 - Finantza entitatea: KUTXABANK
 - Zenbatekoa: 1.100.000
 - Amortizazio epea: 2,25 + gabealdiko epea: 0 = guztira 2,25 urte
 - Interes tasa: EURIBOR + 5
 - Konputatzeko interes tasa (*): 6
 - Ordaintzeko maiztasuna: Hiru hilabetekoa
- 2.- Erabaki hau jendaurrean ikusgai jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragar-ki oholean, 15 eguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.
 - 3.- Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena eskatzea, hari baitagokio kreditu eragiketei buruzko tutoretza, Gipuzkoako Udal Ogasunei buruzko 11/1989 Foru Arauak 52. artikuluan jasotakoaren arabera.
 - 4.- Alkateari ahalmena ematea kontratua eta erabaki hau eraginkorra izateko behar diren dokumentuak formalizatu ditzan.

Une honetan Patxi Albisu Estensoro zinegotzia aretotik irten egiten da.

III.- ITURGAITZAGAKO ERROTONDA LANEN 1. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen obra zuzendaritza daraman IKAUR, S.L.-ko Miguel Salaberria ingeniariak lanen 1. obra-egiaztagiria luzatu du. Lanen 1. obra-egiaztagiri honen zenbatekoa BERREHUN ETA SEI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA BEDERATZI EURO ETA LAUROGEITA HAMASEI ZENTIMO (206.829,96 €) da. Lan hauek GORAIKI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 6 H.J.A. -Iturgaitzaga-ko errotonda lanen 1. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

IV.- KANPANDEGIKO ERROTONDA ETA BIDEGORRIA EGITEKO LANAK ESLEITZEA.-

Kontratazio Mahaiak egindako proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartu ditu:

- 1.- "21 H.J.A.ko 21.1 B.U. -Kanpandegi-Meandroa-ko Urbanizazio Lanen 1. Fasea" proiektuaren lanak burutzeko kontratua GORAIKI A.E.B.ri esleitzea. Kontratuaren prezioa 1.072.024,82 €-koa izango da (gehi 225.125,21€ko BEZa), kontratua burutzeko epea hamabost hilabetekoa (bost hilabeteko geldialdia barne) eta berme epea 5 urtekoa, beti ere, administrazio-baldintza zehatzen orrian eta esleipendunaren proposamenean zehaztutakoen menpe.



- 2.- Esleipendunak bere proposamenean aurkeztutako aukerak, aldaketak edo hobekuntzak onartzea, obra egiterakoan udalak erabakiko duelarik hobekuntza horiek egin ala ez edo/eta nola egin.
- 3.- Proposamenaren egileen eskaeraren aurrean, GORAIKI A.E.B. izenarekin lehendik beste enpresa bat osatuta egonik, eta A.E.B.a osatzerakoan ezinezkoa denez izen bera erabiltzea, esleipen hau GORAIKI KANPANDEGI A.E.B.ri egitea, lehenengo puntuan onartutako esleipena aldatuz.

Hori guztia, Kontratazio Mahaiak egindako proposamenarekin bat etorritz. Proposamena espedientean jasota dago.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia berriro aretoan sartu da.

V.- LARREATEGIKO LURSAILAREN BESTERENTZEAREN ESLEIPENA.-

Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 19 H.J.A. -Larreategi-ko 19.1 Burutze Unitatearen A.30.19.3 lursaila lehiaketa bidez besterentzeko lizitazio espedientea ikusi ondoren.

Lehiaketara lizitzaile bakarra aurkeztu da eta kontratazio mahaiak lizitzaile horren aldeko esleipen proposamena luzatu duela kontutan izanda, Osoko Bilkurak, bertaraturako bere pardaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartu ditu:

- 1.- 19 H.J.A. -Larreategi-ko 19.1 Burutze Unitatearen A.30.19.3 lursailaren besterentzea Josefa Iraola Mujika Andereari esleitzea, EHUN ETA HAMABI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI EURO ETA BOST ZENTIMOtan (112.838,05 €).
- 2.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau eraginkorra izateko behar diren dokumentuak formalizatu ditzan.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

